



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2007ICGO0007

**Eguna:** 2007/11/22

**Ordua:** 11:00-13:00

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- |                                   |         |
|-----------------------------------|---------|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA      |
| - Eloy Bazan Bazan                | EA      |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo    | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés        | EB-B    |

#### Bertaratu ez direnak

-

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2007/10/18ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta del 18/10/2007
Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 1. fasea onartzea.	2	Proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur de Astigarraga. Aprobación del proyecto de 1 <sup>a</sup> fase.
Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 2. fasea onartzea.	3	Proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur de Astigarraga. Aprobación del proyecto de 2 <sup>a</sup> fase.
Agenda 21 zerbitzuaren esleipena. Baldintza pleguak.	4	Adjudicación contrato de servicios Agenda 21. Pliego de condiciones.
Ingurugiroko zinegotziak igorritako dokumentua jakinaraztea.	5	Documentación remitida por el concejal de medio ambiente.
Informazio, galde-erreguak.	6	Información, ruegos y preguntas.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### Esan-eginak eta erabakiak

EGUNEKO AZTERGAIK	ORDEN DEL DIA
<p><b><u>1. 2007/10/18ko aktaren onarpena</u></b></p> <p>2007ko urriaren 18ko akta aho batez onartu da.</p> <p><b><u>2. Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 1. fasea onartzea.</u></b></p> <p>Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari Obra eta Zerbitzuetako batzordeak eginiko diktamena aurkeztu dio akordio hauek proposatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hasierako onarpena ematea Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 1.faseari.</li><li>• Jendaurrean jartzea dokumentua G.A.O.n iragarkia argitaratuz 20 eguneko epeaz</li></ul> <p>Ondoren Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du eta <b>ahoz batez onartu da.</b></p> <p><b><u>3. Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 2. fasea onartzea.</u></b></p> <p>Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari Obra eta Zerbitzuetako batzordeak eginiko diktamena aurkeztu dio akordio hauek proposatuz:</p>	<p><b><u>1. Aprobación del acta del 18/10/2007</u></b></p> <p>Se aprueba por unanimidad el acta de 18 de octubre de 2007.</p> <p><b><u>2. Proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur de Astigarraga. Aprobación del proyecto de 1ª fase.</u></b></p> <p>El Alcalde somete a la Junta de Gobierno Local el dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Aprobar inicialmente el proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur en Astigarraga – Fase 1.</li><li>• Someter a exposición pública el documento, durante el plazo de 20 días, publicando el anuncio en el B.O.G.</li></ul> <p>El dictamen es <b>aprobado por unanimidad.</b></p> <p><b><u>3. Proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur de Astigarraga. Aprobación del proyecto de 2ª fase.</u></b></p> <p>El Alcalde somete a la Junta de Gobierno Local el dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:</p>



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- Hasierako onarpena ematea Astigarragako Galtzaur erreka-stoaren saneamendurako proiektuaren 2.faseari.
- Jendaurrean jartzea dokumentua G.A.O.n iragarkia argitaratuz 20 eguneko epeaz.

**Irizpena aho batez onartu da.**

#### **4. Agenda 21 zerbitzuaren esleipena. Baldintza pleguak.**

Alkateak aurkeztu du Idazkari kontu-hartzaileak Agenda 21 zerbitzua esleitzeko prestatu dituen Baldintza Ekonomiko Administrazioak.

Carlos de la Peña hainbat xehetasun aurreratu ditu eta idatziz alkateari igorriko dizkio Baldintza Pleguetan jasotzeko.

Alkateak jarraian dagokion lehiaketa deituko du.

#### **5. Ingurugiroko zinegotziak igorritako dokumentua jakinaraztea.**

Jakinarazi da Foru Aldundiak Carlos de la Peña zinegotzi ordezkariari aurreratutako dokumentazioa, hain zuzen hondakin prebentzioari buruzko dekalogoak, eta hondakinen prebentzioari buruzko konpromisoa (eranskin 1,2) jasotzen dituenak.

Gobernu Batzarrak erabaki du aipaturiko dokumentazioa osatua jasotzerakoan eranskinetan jasotako konpromisoak Alkatearen Dekretuaren bitartez onartuko direla.

- Aprobar inicialmente el proyecto de saneamiento de la regata Galtzaur en Astigarraga – Fase 2.
- Someter a exposición pública el documento, durante el plazo de 20 días, publicando el anuncio en el B.O.G.

**El dictamen es aprobado por unanimidad**

#### **4. Adjudicación contrato de servicios Agenda 21. Pliego de condiciones.**

El Alcalde presenta el Pliego de Cláusulas Administrativas formuladas por el Secretario-Interventor para la contratación del servicio de dinamización y desarrollo de la Agenda 21.

Carlos de la Peña formula distintas matizaciones que concretará y trasladará a Alcaldía para su inclusión en el Pliego de Condiciones.

Alcaldía posteriormente procederá a la convocatoria del concurso pertinente.

#### **5. Documentación remitida por el concejal de medio ambiente.**

Se da cuenta de la documentación adelantada por la Diputación Foral de Gipuzkoa al concejal delegado Carlos de la Peña en relación al Decálogo por la Prevención de Residuos Urbanos y compromiso por la prevención de residuos y que se da cuenta a esta Junta (anexos 1 y 2).

La Junta acuerda que una vez se reciba la documentación completa a través del correspondiente decreto de Alcaldía se asumirán los compromisos recogidos en dichos anexos.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### **6. Informazio, galde-erreguak.**

6.1.- Gartziategiko bizilagunek Foru Diputaziotik kalte-ordainak kobratu dituzte desjabetze atalean eta jarraian Foru Ogasunak zerga bat likidatu nahi du. Bere ustetan zerga likidazioa desegokia da eta Carlos de la Peña zinegotziak Alkateari galdetu dio eginiko kudeaketak zertan gauzatu diren.

Alkateak egindako kudeaketan berri eman dio.

Urriaren izandako osoko bilkuran eta Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen Erregelamenduaren diktamena aurkeztean Idazkari kontu-hartzaileak eginiko interbentzioaz EB-B ko zinegotziak galdera luzatu du.

Idazkari kontu-hartzaileak zehaztu du urriaren 25eko osoko bilkura, urriaren 22an deitu zela, eta une horretan Parte hartzea, merkataritza eta kooperazio eta garapeneko batzordeak diktamenarekin ez zuela aipaturiko erregelamendua igorri.

Aipaturiko puntu gai-zerrenda jasotzea agindu zen baina Idazkari kontu-hartzaileak ez zuen tarterik izan erregelamendua aztertzeke eta osoko bilkuran bere funtzioak beteaz behar adinako ñabarduran egin zituen.

Batzordeetako Osoko bilkuretarako deialdiak egiteko ezarri diren epeak aztertu dira eta Idazkari kontu-hartzaileak baieztatu du osoko bilkuran planifikazioari buruz hartutako erabakia: batzordeak hileko lehen astean egitea. Horrela bigarren astean Idazkaritzan diktamenak jasoko dira eta hirugarren asteko ostiralean deialdiaren

### **6. Información, ruegos y preguntas.**

6.1.- El concejal de EB-B Carlos de la Peña formula pregunta en relación al problema planteado por el cobro de las indemnizaciones por desalojos y la liquidación fiscal girada por la Hacienda Foral, en su opinión injusta por lo que pregunta al Alcalde que gestiones ha realizado.

El alcalde informa de las gestiones realizadas.

El concejal de EB-B formula pregunta en relación al Pleno del mes de octubre y la intervención del Secretario-Interventor tras la presentación del dictamen relativo al Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico.

El Secretario-Interventor informa que el orden del día del Pleno del 25 de octubre, se convocó el día 22 y el dictamen remitido por la Comisión de Participación Ciudadana y Comercio no incluía el Reglamento en cuestión.

Dado que imperativamente se incluyó el punto en el Orden del Día sin tiempo material para que el Secretario-Interventor analizase el Reglamento obviamente en ejercicio de sus funciones informó oralmente en el Pleno de las matizaciones que en su opinión deberían recogerse y así constaron en acta.

Se debate el tema de plazos de convocatorias de y el Secretario-Interventor a efectos de organización se reafirma en la planificación aprobada por el Pleno de modo que las Comisiones Informativas se realicen la primera semana de cada mes; de ese modo en la segunda semana se pasen a Secretaría los dictámenes y el viernes de la tercera



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<p>zirriborroa prestatuko litzateke. Punturen bat txosten osagarriren bat behar izan ez gero ezin izango zen gai-zerrenda jaso.</p>	<p>semana se pueda preparar el borrador del orden del día del Pleno. En cualquier caso si determinado punto requiere informe complementario no se debería incluir el punto en el Orden del Día.</p>
<p>Carlos de la Peñak adierazi du hau guztia batzordeetako idazkarien lana koordinatzea lan handia suposatzen diola eta hori idazkariaren lana dela. Idazkari kontu-hartzaileak dio batzordeetako idazkariak ondo ezagutzen dutela prozedura behar bezala funtzionatzeko prozedura errespetatuz. Arazoa agian batzordeetako lehendakariak batzordeetako egutegia ez errespetatzean datza.</p>	<p>El concejal Carlos de la Peña indica que ello le exige trabajo de coordinación con los secretarios de sus comisiones y que ese es trabajo del Secretario. El Secretario contesta que los Secretarios de Comisión tienen cumplida información y formación para respetar el procedimiento establecido. El problema más pueden derivarse quizás por incumplimiento de los calendarios de comisiones por parte de los Presidentes de Comisiones.</p>
<p>Azkenik, Carlos de la Peña zinegotziak dio aipaturiko epeak bermatzeko ez duela bere kargura behar adinako giza baliabideak. Alkateak dio baduela batzordeko idazkari bat eta gainontzeko teknikari eta funtzionarioak eta horiekin lan egin behar duela.</p>	<p>Finalmente, el concejal Carlos de la Peña señala que para cumplir esos plazos el no tiene personal a su cargo para que le saque el trabajo. El Alcalde contesta que ya tiene un secretario de comisión y una serie de técnicos y funcionarios con los que debe operar.</p>

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2007ko azaroaren 22an

Xabin Olaizola Lasa  
Idazkari-Kontuhartzailea